

PRENTSA OHARRA

Eusko Legebiltzarra esklerosi anizkoitzagatik "busti" da

Quirogak Legebiltzarra konprometitu izatea nahi du, baita sentsibilizatua ere

Euskal herritarrak kanpainan parte hartzeko animatzen ditu, hori "helburu handi bat lortzeko urrats txiki bat" delako

"Legebiltzarrak ez du ahazten XXI. mendeko gaixotasun isiletako bat dutenen errealitatea"

Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, Mahaiko kideekin batera, bat egin du esklerosi anizkoitzaren inguruko MÓJATE-BUSTI ZAITEZ aurtengo kanpainarekin. Gaur Legebiltzarrera etorritako Esklerosi Anizkoitza Fundazioko kideek elastikoak banatu dituzte, eta bai Arantza Quirogak bai aretoan zeuden beste legebiltzarkideek horiek jantzi dituzte.

Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, ongi etorria ematean, esan du gaurko ekitaldia ez dagoela protokoloaren arauen mende. "Aldiz, ekitaldi honek oso ondo adierazten du bai lehendakari honek bai legebiltzarkide guztiok Legebiltzarrerako nahi duguna: euskal herritarren benetako nahiak entzuten dituen erakundea izan dadila".

"Herritarrengana hurbiltzea, beren ohiko kezketatik eta gogo orokorretatik hurre egotea dira Eusko Legebiltzarraren jardueraren helburuetako batzuk. Aurten ospatzen ari garen 30. urteurren honetan ohorez ordezkatzeko ditugun euskal herritarrak entzun nahi ditugu, eta haiengandik oraindik hurbilago egon".

Arantza Quirogak adierazi du Eusko Legebiltzarrak ez duela alboratu tamalez gaixotasun hori dutenen errealitatea. Esan duenez, "zuek XXI. mendeko gaixotasun isiletako bat egunero pairatzen duten milaka euskal herritarren ordezkariak zarete, eta badakizue legebiltzarkide asko saiatu direla zuei laguntzen, behar izan duzuen bakoitzean. Bai osoko bilkuretan bai batzordeetan zuei laguntzen saiatu gara. Pentsatu hemen gauden legebiltzarkide guztiok nahi dugula Eusko Legebiltzarra bai konprometitu bai sentsibilizatua izan dadila".





Bermatzen dizuet, gainera, lehendakari hau busti dela euskal herritar guztionzat benetan garrantzitsuak diren gaiengatik, eta goiz honetan bildu gaituen gaia horiek bezain garrantzitsua dela. Beraz, aurten ere udako zuen kanpainan parte hartuko dut, eta esklerosi anizkoitzagatik bustiko naiz berriro.

MÓJATE-BUSTI ZAITEZ.

Eskerrik asko.





NOTA DE PRENSA

La Cámara vasca se “moja” por la esclerosis múltiple

Quiroga desea un Parlamento no sólo comprometido sino además sensibilizado

Anima a los vascos a participar en la campaña, “un gesto pequeño para una causa grande”

“El Parlamento no es ajeno a la realidad de quienes padecen una de las enfermedades silenciosas del siglo XXI”

La Presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga se ha sumado junto a los miembros de la Mesa de la Cámara a la campaña de este año a favor de la esclerosis múltiple MÓJATE-BUSTI ZAITEZ. Tanto Arantza Quiroga como el resto de parlamentarios presentes se han enfundado la camiseta que les han repartido los miembros de la Fundación Esclerosis Múltiple recibidos hoy en sede parlamentaria.

La Presidenta del Parlamento Vasco les ha dirigido unas palabras de bienvenida en las que ha destacado que el acto de hoy dista mucho de ser protocolario. “Al contrario, define muy bien lo que tanto esta Presidenta como el conjunto de parlamentarios queremos que sea nuestra institución: un Parlamento atento a las demandas reales de los vascos.”

“Estar cerca de los ciudadanos, de sus preocupaciones cotidianas, de sus anhelos colectivos constituye parte de los objetivos que mueven las actuaciones del Parlamento Vasco. En el 30 aniversario que celebramos durante este año deseamos escuchar y estar aún más cerca si cabe de los vascos a quienes nos honramos representar.”

Arantza Quiroga ha puesto de manifiesto cómo para el Parlamento Vasco la realidad de quienes lamentablemente padecen esta enfermedad no le es ajena, “Ustedes, les ha dicho, representan a miles de vascos que sufren diariamente una de las enfermedades silenciosas de este siglo XXI, y saben que muchos de los parlamentarios han procurado atenderles siempre que lo han necesitado. Bien en pleno, bien en Comisión, aquí se ha tratado de apoyarles. Piensen que que todos





los parlamentarios aquí presentes queremos conseguir un Parlamento Vasco no sólo comprometido sino además sensibilizado.”

Tengan además la garantía de que si esta Presidenta se ha mojado por las cuestiones que de verdad importan al conjunto de los vascos, la que esta mañana nos reúne no lo es menos. Así que este año participaré de nuevo en su campaña estival y me volveré a mojar por la esclerosis múltiple. MÓJATE-BUSTI ZAITEZ.

Muchas gracias.

